

1.BLOKEA: KAIXO, BERRIRO HEMEN!

Egoera: Uda pasatu ondoren, ikastetxera bueltan, badugu zer kontatu! : aldatu egin gara, asko edo gutxi, oporretan hor zehar ibili gara makina bat gauza egiten eta orain, ikastetxera bueltatuta, proiektu asko ditugu...

HELBURUA: Bizi izandako esperientziak kontatzea eta ikasturte berriaren aurrean norberaren egoeraren eta asmoen berri ematea.	Funtzio eta adierazpide linguistikoak • Denboran zehar gertatutako ekintzak kontatzea: denborazko esaldiak (eta gero, ondoren, baino lehen, -enean...); aditzaren aspektu burutua (joan gara, egin dugu, joan ginen...), antolatzaileak eta lokailuak; leku-adberbioak: hemen, hor, han...; denbora-adberbioak: gaur, atzo, bihar, etzi, orain, gero, lehen...; modu-adberbioak: gaizki, txarto, ondo, poliki...; zalantza-adberbioak: agian, badaezpada, dudarik gabe, noski... • Lekuak eta gauzak kokatzea eta deskribatzea: zerbait nolakoa den, non dagoen... • Konparazioak egitea: aurreko ikasturtean baino altuago nago, lehen baino lodiago nago...) • Deklinabidea lantzea (Non, noiz, nora, nongo(a) norekin...) • Informazioa ematea eguneroko kontuez. • Lexikoa: aisialdiko jarduerak (paseatu, zaldi gainean ibili, mendira joan...) • Sentimenduak, jarrerak/egoerak adieraztea (gustura, triste, urduri, arduratuta...) • Gustukoa den ala ez den adieraztea (pasa dugu, primeran egon gara, ez zait batere gustatu...).
---	--

Ataza:

1. Miniataza: Gelakideei agurra ematea, gonbite-txartelak eta oparia eginez.
2. Miniataza: Grabazio labur batean (audioa nahiz bideoa), oporretan egindakoa eta egun ikastetxean egiten ari direna eta dituzten planak ere kontatuko dituzte ikasleek. Grabazioa ikastetxeko blogean jarriko dute. ***Atazaren aldagaia:** argazkien bidez kontatzea
3. Miniataza: Gorputzean emandako aldaketaz ahoz adierazi.

1.- UNITATEA: ONGI ETORRIA	
Helburua: Elkarri mezu positiboak idaztea. Gonbit-txartelean gelakideein zaletasunak, nolakotasuna eta zertarako den oparia ikasiko dute. Instrukzio testua ulertzea.	Funtzio eta adierazpen linguistikoak: • Agurtzea: ondo ibili, ongi etorri... • Kortesiak formula: Mesedez. eskerrik asko • Aginteak adieraztea: eman, tori, utzi, • Personen zaletasunak: kirola egitea, abestea... • Zertarako den: ...teko-tzeko

Egoera: Oporrak amaitu dira eta berriro eskolara datoz. Euskara entzun barik denbora luze egon dira eta agian ikasleak ez dira denbora horretan elkar ikusi. Gerta daiteke, ikasle berriren bat ere egotea. Hori dela eta elkarri ongi etorria emango diote.	Ataza: Gelakideei mezu positiboa idaztea, irudimena erabilia, gonbit-txatela bidez. Eskulan bat egingo da eta bertan gonbita jarriko da.
--	--

1.jarduera multzoa: unitatea aurkeztu eta helburuak zehaztu			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Zer egingo dugu? Zer ikasiko dugu? Irudien bidez aurkeztu.	Irudiak Arbel digitala		
Aurrezagutzak aktibatu: Gelakide bat aukeratu eta paper batean bere ezaugarri positibo	Papera Argazkiak, txartelak nolakotasuna adierazten dituztenak.	Kevin alaia da. Jasmina ona da.	

bat idatziko du. Hau da, nolako den.			
2. jarduera multzoa: Eredua aurkeztea.			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Ikasiko eta egingo dutenaren eredua aurkeztuko da. Eredua idatzia eta eskuz egindako jostailua ere bai.	Zotzez egindako zerbait Papiroflexiaz egindako zerbait Testuaren eredua.	Errepaso moduan kontzeptu asko erabili daitezke: Non: azpian, barruan, azpian, Egiteko behar dutena ahoz esan: egingo dut. Material hauek behar dira: Materialak eskatu: utzi..., eman..., non dago..., zoriontzea Mezu positiboak ematea Gidoia: Norentzat: Zertarakoden edo ez den:teko/tzeko Agurra Ereduak: Nire lagun onarentzat. Boligrafoak gordetzeko. Ikusi arte! Zuretzat. Logela apaintzeko. Ondo ibili!	

3.- Jarduera multzoa : Hizkuntzaren lanketan sakontzen			
Hizkuntzako edukiak errepasatuko dira.: Norentzat, zertarako, izaera, zaletasunak, espazio kontzeptuak			
Gelakoen ezaugarri nabarmenenak jasoko dira, gero mezu positiboak idazteko. Folio birakara erabiliko da datuak jasotzeko	Nolakoak gara		
Datuak denon artean interpretatu. Binaka, ezaugarri bat hartu eta ahoz eman informazioa. Ezetza landu. Irudi bat aukeratu. Irakasleak edo beste ikasle batek elemento batzuk esango ditu eta irudian aurkitu behar dituzte. Batzuk egongo dira baina gehienak irudian ez daudenak esango dira ezetza lantzeko, Bikoteka landu eta irudi berdina baina ezberdintasun batzuekin. Bakoitzak ikusten duena deskribatuko du eta besteak berean dagoen ala ez esan.	Irudiak	Saima eta Jussef alaiak dira. Hiru kirolari daude. Gelan irakurle bat dago. Ez dago margolaririk. irudian ez dagoik. Nirean ez dago ...ik.	
Ahoz,egitura horiek erabiltzeko jolasa. Binaka jarri eta, asmakizunetara jolastuko dira. Kutxa batean objektu ezberdinak	Kutxa bat eta objektu ezberdinak	Niri tokatzen zait. Hartu dut, objektua. Zein da? -Zertarako da?-	

sartuko dira. Bat, hartuko dute eta besteek asmatu behar dute zer den. Galdera: zertarako da? erabiliko da. Ondoren, norentzat izango den galdetuko dute: Norentzat izango da?		jolasteko, gauzak gordetzeko, margotzeko, gauzak ipintzeko -Bai/ez -Norentzat izango da? -Josurentzat, Kirolariarentzat, pertsona alaiarentzat ...	
Aginteetara jolastea.		Utzi/eman... Hartu... Ekarri.... Kortesiazko formulak: mesedez.... Eskerrik asko Tori	
Binaka, objektu bat aukeratu eta ezaugarriak idatziko dituzte. Horietan nolakotasuna eta zertarako de edo ez den idatziko dute. (3-4 esaldi)		Nolakoa da Zertarako balio edo ez du balio Zer da?	
Aukeratu edo tokatu zaion ikaskidearen ezaugarriak kontuan hartuko ditu eta zorientzeko esaldiak idatziko ditu koadernoan. Gero, zorientzeko txartelaren itxura pentsatuko eta paperez bere diseinua egingo du.	Nolakoak gara fitxa Papera		
4. Jarduera multzoa: Egindakoa aplikatzen eta komunikatzen: Eskulana egin txartela jartzeko			

Banaka, eskulanak egiten hasiko dira. Eskulanen ereduak aurkeztu nahi dutena eurek aukeratzeko. Aukeratu dutena besteei esan.	Eskulanak egiteko bideoak Eskulan motak /2 Antiestres-panpina Argibide testuak	Irakasleak esapide hauek erabiltzera gonbidatu: Nik hau egingo dut. Niri hau gustatzen zait. Eskulan hau egingo dut. Nik ere egingo dut.	
Aukeratu ondoren, behar diren materialak prestatu eta ahoz adierazi.	Eskulanak egiteko bideoak Antiestres-panpina Argibide testuak	Hau aukeratu/ egingo dut. Material hauek behar dira:	
Jostailua egin eta txartela aukeratutako materialekin. Banaka egin behar dute, bakoitzat berea egingo duelako.		Materialak eskatu: Eman arkatza mesedez Utzi artaziak	Irakurketaren ulermena. Testuak ulertzen eta jarraitzen ditu era autonomoan.
Jostailuan itsatsi txartela eta eman bere lankideari.		Tori zuretzat. Nire lagun onena zarela tori zuretzat. Mila esker/ Eskerrik asko	

2. UNITATEA: ALDATU EGIN GARA, BAI! /ALDATU EGIN DA! (Pertsonai ezagun baten aldaketen berri ematea)

HELBURUA: Deskripzio testuak birgogoratzea, norberaren itxura fisikoa deskribatuz eta udan izandako aldaketak zehaztuz.

Funtzio eta adierazpide linguistikoak

- Pertsonen deskripzioak egitea
- Lexikoa: itxura eta aldaketak deskribatzeko hitzak eta aditzak

	(hazi, argaldu, loditu. Orain ... 4 cm altuagoa naiz lehen baino, 4 cm hazi naiz...) Konparazioak egitea: orain lehen baino ...-agoa naiz, lehen baino X gehiago dut/ditut..
--	---

Egoera: Uda luzea izan da eta denok aldatu gara. Bai, ezta? Nola?	Ataza: Udan fisikoki izandako aldaketak deskribatu.
--	--

1. Jarduera multzoa: unitatea aurkeztu eta helburuak zehazten			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Irakasleak atazaren ezaugarriak azalduko ditu talde handian . - Arbel digitalean idatziko ditu helburuak. - Ozenki irakurriko ditu,	Arbel digitala		Ikasleek helburuak ulertu dituzte. Semaforoa edo hatzak erabil daitezke ikasleek ulertu dutela egiaztatzeko.
2. Jarduera multzoa: aurretiko ezagutzak azaleratzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Nori buruz ari naiz? Jolasa	Irudiak	Izenak eta adjektiboak aurpegiak deskribatzeko:	Parte hartze aktiboa erakutsi du

Talde handian, irakasleak laminako pertsonaia baten deskripzioa egingo du eta ikasleek asmatu beharko dute zeini buruz ari den.	https://drive.google.com/file/d/1-UNDvtUjiT2xoAMDPWtjZAoUGn94bZPQ/view?usp=sharing Deskripzioa egiteko txantiloia baliatu: <i>Burua nolakoa da?</i> <i>Begiak nolakoak dira?</i> <i>sudurra? Belarriak?</i> <i>Pertsona honek nolako ahoa du?</i> <i>Nolakoa da? Zaharra, gaztea, adin ertainekoa, oso gaztea...</i>	Ilea (kolorea, luzera, kizkurra, lisoa...) Sudurra Ahoa Begiak (kolorea, tamaina, Itxura: gaztea, zaharra, adin ertainekoa, Egiturak: ematen du...gaztea dela, zaharra dela...	Lankidetzan aritu da beste ikaskideak
Panpin bat egin eta asmatu nor den aginte batzuen arabera, A2ko eredu erabili	Egiteko arauak		
Nor da nik aukeratutako pertsona? Ikasleek bikoteka jardungo dute eta irakasleak egin duen moduan jardun, txandaka. Talde handian jardungo dute bukaeran. Irakasleari egingo dizkiote galderak eta berak asmatzen duen zein den aukeratutako pertsona.	Aurreko jarduerako gidoia		Bikoteka elkarrekin kooperatzen dute. Parte hartze aktiboa erakusten dute
3. Jarduera multzoa: praktikan jartzen. / NOLAKOA NAIZ NI? ETA ZU?			

JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Nolakoa naiz ni? Nolakoa zara zu? Oraingoan, nork bere burua eta beste kide batena deskribatuko ditu. Irakasleak ikasleen izenak paper zatitxoetan idatzi eta kutxa batean sartuko ditu. Ikasleek papertxo bana aukeratu eta egokitu zaien ikaslearen deskripzioa egingo dute euren burua deskribatu eta gero.	Aurreko jarduerako gidoia	Lexikoa: gorputz atalak, adjektiboak (tamaina, luzera, kolorea, itxura...) Konparazioak: baino -ago(a) da/ baino gehiago/gutxiago ditu... Egiturak: ematen du...gaztea dela, zaharra dela...	
4. Jarduera multzoa: Hizkuntzaren lanketan sakontzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Konparazioak egiten Gelako objektuak konparatuko dituzte. Bikoteak egin eta haien arteko aldeak ikustaraziko dituzte konparazioak baliatuz.	Gelako objektuak bikoteka elkartuta.	• X Y baino handiagoa da • X Y baino Txikiagoa da • X-k Y-k baino gehiago du/ditu • X-k Y-k baino gutxiago du/ditu •	
Irudian pertsona bakoitzari izen bat jarri eta konparazioak egin	Gelan	Zertan erreparatu konparazioak	

		egiteko: Altuera: Ilearen luzera Jantziaren tamainua Izaera:	
Itxura fisikoan izandako aldaketak nola adierazi? Norberaren itxuran jasotako aldaketak adierazteko egiturak jorratuko dituzte ikasleek.. Aurreko urtean fitxa neurketekin egin bada, erabili daiteke datuak konparatzeko.	Argazkiak baliatu: Lehen eta oraingo argazkiak jaso	hazi egin da. ...(zenbat) cm altuagoa da Orain lehen baino argalago dago, lodiago dago.... Egiturak: hazi, loditu, argaldu,,, egin da, ile luzeagoa du orain ...	
5. Jarduera multzoa: NI, LEHEN ETA ORAIN. ASKO ALDATU NAIZ, BAI HORIXE!			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Ikasleei euren argazkiak ekartzeko eskatuko diegu. Lehengo argazkiak oraingoekin konparatuko dituzte. Atazan zehar jorratutakoa jarriko dute praktikan. Argazki oinak idatziko dituzte: Ni, lehen eta orain.	Ikasleen argazkiak. Lehen /orain	Konparazioak egiten. <i>Orain altuagoa naiz duela urte bete baino,</i> <i>.....cm hazi naiz</i> <i>Orain lodiago nago duela urte baino, orain.....kg pisatzen dut/ bi kilo gehiago ditut.</i> <i>Orain argalago nago duela</i>	

		<i>bi hilabete baino</i> <i>Egiturak: hazi egin naiz, loditu egin naiz, argaldu egin naiz, ile luzeagoa dut orain urte bete baino...</i>	
6. Jarduera multzoa: Zer moduzko deskripzioak egin ditugu?			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Ikasleek idatzitako deskripzioak eta egindako konparazioak hobetzeko jarduera. Ikasleek banaka idatzitako testuak ikusgai jarriko dituzte arbelean. Kideek irakurri eta hobetzeko iradokizunak egingo dituzte.	Txantiloia behaketa egiteko		
Iradokizunak jaso eta testuak hobetuko dituzte.	Behaketa txantiloia kontrol zerrenda gisa.		
7. Jardueramultzoa: Egindakoa aplikatzen eta komunikatzen / HONELAKOAK GARA ETA PILA BAT ALDATU GARA, BAI!			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Ikasleek argazkien azpian beren deskripzioak idatziko dituzte. Eta ikasgelan ikusgai jarri	Txantiloia		

3. UNITATEA: OPORRETAN? PRIMERAN! **ASMATUTAKO OPORRAK**

HELBURUA: Bikoteka elkarriketak garatzea oporretan egindakoa elkarri kontatuz

Funtzio eta adierazpide linguistikoak

- Denboran zehar gertatutako ekintzak kontatzea: Non? Nora, Nondik? Noiz? Norekin? zein hizkuntzatan? Aditzaren aspektu burutua orainaldian eta lehenaldian baliatzea, d Denborazko adberbioak eta antolatzaileak.
- Zerbait gustukoa den ala ez den adieraztea.
- Lexikoa: emozioak, sentimenduak, aisialdiko jarduerak

Ataza: elkarriketa bidez, oporretan egindakoa elkarri kontatzea.

1. jarduera: unitatea aurkeztu eta helburuak zehazten

JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Irakasleak arazo-egoera azaldu eta helburuak zehaztuko ditu. Ahoz azaldu eta arbelean idatziko ditu. Galderak egingo ditu egitekoa ondo ulertu duten ala ez egiaztatzeko	Arbel digitala		Ikasleek arretaz entzuten dute. Helburuak ulertu dituzte.

2. jarduera: motibazioa pizteko jarduerak

JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
-----------	-------------	-------------------	----------

Irakasleak eredu gisa jardungo du. Bere udako esperientzia kontatuko du, eredu bati atxikiz. Kontaketa marrazkiekin hornituko du edo oporretako argazkiak erakutsiko ditu	Marrazkiak arbelean/ Argazkiak erakutsi Irudiak hitz egiteko eta eredu moduan. Oporrak Nire oporrak testuak Gure oporrak Audioa: oporrak	Esaldi bakunak: Non egon naiz? Zer egin dut? Norekin joan naiz... Noiz joan naiz? Lagunik egin dut? Norekin hitz egin dut? Zein hizkuntzatan hitz egiten du horrek? Lexikoa: Lekuak: hondartza, ibai, hiri, mendi, kale... Non, nora: hondartzan, herrietan, Bartzelonara Adjektiboak: estu, zabal, eder, luze... Lexikoa: Aisialdiko jarduerak (zaldi gainean ibili, igeri egin, mendira joan, lagunekin egon, paseatu....). Aditzaren aspektu burutua: joan naiz, egin dut, joan gara, orainaldian eta lehenaldian (hastapenak) Esapideak: • Oso ondo pasatu dut/ nuen. • Gaizki egon naiz/ nintzen • Primerako	Ikasleek jarrera positiboa eta arretatsua erakusten dute.
--	--	--	--

		esperientzia izan da!	
3. jarduera-multzoa: Aurre-ezagutzak azaleratzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Aurre-ezagutzak azaleratzen. Ikasleek udan egin dutena marrazki bidez irudikatuko dute lau binetatan.	Ikasleek egingo dituzten irudiak		Parte-hartze aktiboa eta interes erakutsi ditu
Binetak erakutsi eta azaldu egingo dute haien bidez egin dutena. Irakasleak egin duen eran. Lexikoa eta lotura hitzak landuko ditugu: Non, lehenengo egunean, hasieran, gero, ondoren, bukaeran...		Leku-adberbioak: hemen, hor, han... Denbora-adberbioak: egun horretan, gero, handik bi egunera, bukaeran... Modu-adberbioak: gaizki, txarto, ondo, poliki... Denbora antolatzaileak Lehendabizi, ondoren, gero...	
4. jarduera-multzoa: Hizkuntza lantzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Audioa oporretakoa ereduakoren informazioa aztertuko da. Bertako tokiak identifikatu, hiztegia landu.	Anayako audioa entzun.	Nora? Norekin? Zerez? Tokia deskribatu Lekuak: hondartza, ibai, hiri,	entzutezkoaren ulermena egiaztatzeko jarduerak egin ditu

Hizkuntza lantzen: Oporretako hiztegia eta bingo jolasa.	Bingo jolasa	mendi, kale... Non, nora: hondartzan, herrietan,.. Adjektiboak: estu, zabal, eder, luze...	
5. jarduera: Gure testua atontzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Zer eta nola kontatuko dugu? Zein eredu da ona? (talde handian) Hizkuntza funtzioak eta egitura egokiak taldean aztertzeko eta erabakitzekeo jarduera. Aurreko jardueretan oinarrituta, elkarrizketarako testu ereduak sortuko dute ikasleek talde handian. Txandaka idatziko dituzte esaldiak arbelean. Testu ereduak sortuko dute. Fitxa testua sortzeko. Galderak erantzun eta gero, testua idatziko dute.	Arbel digitala. Testu ereduak tankera honetakoak izan daitezke. Dena den, taldeak erabakiko du ereduak erreparaturik zeintzuk izango diren esaldiak *estekatutako txantiloian “..... (NON) izan naiz/nintzen oporretan. (noiz) joan nintzen.....(norekin) eta han lagun berri hauek egin ditut:..... Lagunekin(zein hizkuntzatan?) hitz egin dut eta hitz berri hauek ikasi ditut...” Txantiloia idazteko ETA GERO AHOZ KONTATZEKO	Nor? Norekin? Nora? Nondik? Nor ezagutu? Lagun berririk? Zer egin dut/dugu? Nola pasatu dut/dugu?.....	Ikasleek ekarpenak egin dituzte eta arbelean idatzi dituzte esaldi sinpleak

Bingoa erabili daiteke kontaketa egiteko.	Oporretako bingo jolasa		
6. jarduera-multzoa: Gure testua sortzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Gure oporrak elkarri kontatzen Ikasleek bikoteka jardungo dute. Nork bere testua idatzi eta elkarrizketa ozenki garatuko dute... Bikoteka praktikatuko dute. Bikoteak egiteko, Ikastalde osoa ilaran jartzen da irizpide baten arabera (adina, urtebetetzea, izenaren lehen letra, eskolara etortzeko distantzia...). Ilararen amaieran dagoena hasierara mugitu eta bikoteak egiten dira.			Bikoteka aritu dira. elkarri ekarpenak egin dizkiote bikoteko kideek.
Zer deritzozue egindakoa? Taldekideen aurrean aurkeztu eta denen artean ebaluatu egingo dute egindakoa. Ikasleek iritzia emango dute.	Errubrika hau baliatu daiteke		Ondo eta agi ahoskatu du Lexiko berria baliatu du Zer egin duen kontatu du kronologikoki Aditz egokiak erabili ditu

Gure testua hobetzen Ikaskideen iritziak kontuan hartu eta testuak hobetuko dituzte. Idatziz lehendabizi.	Ikaskideen iritziak eta irakaslearen feed back-a		
7. jarduera: praktikan jartzen eta komunikatzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Hauxe gure oporren kontaketa! Elkarrikeria bidez garatu duten kontaketa prest dago grabatzeko. Elkarriketak grabatzen!	Google driveko grabagailua.	Unitatean zehar landutako edukiak	

3. UNITATEA: OPORRAK, GU ETA IKASTURTE BERRIA. IKASTETXEKO BLOGEAN ZINTZILIKATZEKO GRABATZEN	
HELBURUA. Ikasturte berria dela eta norberaren egoeraren berri kontatu eta planak eta asmoak adieraztea.	Funtzio eta adierazpide linguistikoak Norberari buruzko datuak ematea eta tokien kokapena zehazten jakitea. Planen eta egitasmoak adieraztea. Norberaren sentimenduak eta emozioak azaltzea: pozik, kezkatuta, alai... Zaletasunak adieraztea. Zerbait dutuko dugun ala ez adieraztea. Zergatiak adieraztea Zergatik zaude pozik?....-lako

Ataza: Grabazioa burutzea gure egoeraren berri emanez. Gure aldaketak, oporretan egindakoa eta orain bizi duguna kontatuko dute bideo grabazio labur batean.

1. jarduera: Helburuak eta egitekoak zehazten			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Irakasleak helburuak eta egitekoak zehaztuko ditu. • Ahoz azaldu eta arbelean idatziko ditu. • Galderak egingo ditu ikasleek ondo ulertu duten ala ez egiaztatzeko	Arbel digitala		Ikasleek arretaz entzuten dute. Testuingurua, egitekoak eta helburua ulertu dituzte.
2. jarduera: Aurretiko ezagutzak azaleratzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Norberaren egoeraren berri ematen: Nor naiz? Zein da nire gela? Non kokatzen da gure gela? Aurreko mailan (A1 mailan) landutako egiturak birgogoratuko dituzte.		Zein da zure gela? Zein solairutan dago? Zein mailatan ikasten ari zara? Zein arlo gustatzen zaizu? Zein ez zaizu gustatzen? Zergatik?	Parte hartze aktiboa erakusten dute

3. jarduera: Datu gehiago eta zehatzagoak ematen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Ikasleek oraingoan norberaren datuak, zehatzago, emango dituzte. Ikasleek elkarri azalduko diote zein ikastaldetan dauden, non kokatzen den, noren ondoan esertzen diren, zein mailatan ari diren, zer ikasten ari diren, zer duten gustuko eta zer ez. Irakasleak galderak proiektatu egingo ditu. Berak eredu gisa azalduko du zein den HIPi gelaren kokalekua eta datuak ahalik eta modurik zehatzenean emango ditu.	Arbel digitala. Galderak bertan proiektatuta. Gure kontaketa	• Zein mailatan ikasten ari zara? • Zein da zure gela? • Zein solairutan dago? • Zeren ondoan/aurrean/atzean...dago? • Noren ondoan eseritzen zara? • Zein arlo gustatzen zaizu? laz zer gustatzen zitzaizun? • Superlatiboaren erabilera • Zein da gutxien gustatzen zaizun arloa?	Galderei erantzuten diete Kontaketa jarraia egiten dute lokailu sinpleak baliatuz... (eta, baina...)
Ikasleek, gidoiko galderei erantzuna emango diete. Banaka. Koadernoan jasoko dituzte.	Arbel digitala	Aurreko jarduerako egiturak	
4. jarduera: Emozioak adierazten eta kausazko perpausak lantzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Nola zaude? Bideoa ikusiko dute	Zelan zaude? bideoa ikusi	Nola sentitzen zara? emozioak eta sentimenduak	

sentimenduak adierazteko hitzak gogoratzeko. Taldean hitz gehiago proposatuko dituzte eta marrazkien bidez adierazteko ahalegina egingo dute.	https://photopeach.com/album/nucfcy	Graduatzaileak: oso, nahiko, guztiz...	
Zergatik zaude horrela? Kausazko perpausak lantzeko jarduerak burutzen. Zergatik galderari erantzunez, inguruan dituzten egoeren kasuak eta arrazoiak adieraziko dituzte.	Baliatu aurreko jarduerako irudiak: Zergatik dago gizona haserre? Zergatik dago umea oso haserre? Zergatik dago negarrez? Kausazko perpausak lantzeko txantiloia	Zergatik? Kausazko perpausak: ...-(e)lako	
Honela nago eta arrazoiak hauxe da Emozioen eta sormenaren munduan murgiltzeko jarduera da hau. Ikasle bakitzak bina sentimentu aukeratuko ditu haien zergatiak adierazten ahaleginduko da.	Txantiloia bana eman. Bertan honako hauek izango dituzte: Nola sentitzen zara? Zergatik? Marrazkia:..... Sentimenduaren izena: Zergatia:	Emozioak eta sentimenduak: Kezkatuta, urduri, itxaropentsu, pozik... Graduatzaileak Kausazko perpausak: ...-(e)lako	
5. jarduera: Gure kontaketa egituratzen			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
Nork bere kontaketa jarraitua idazten	Kontrol zerrenda . Hobetzeko iradokizunekin	aurreko ataletako egiturak	

Non dagoen, zer egiten duen gustuko dituen arloak hain gustuko ez dituenak eta norberaren sentimenduak eta haren zergatiak adieraziko ditu. Sentimenduen irudia eta zergatiaren azalpena ere gehituko dute. azalpenaren gidoia egituratuko dute. Irakasleari irakurri eta honek feed back-a emango die.			
Gure testuak egokitzen Irakasleak emandako feed back-aren arabera aldaketak egingo dituzte. Testua denon aurrean irakurriko dute.			
6. jarduera: Grabatzen! gure esperientzia 60 segundotan!			
JARDUERAK	BALIABIDEAK	HIZKUNTZA EDUKIAK	BEHAKETA
1,2,3...shhh.Grabatzen Egindako guztia erakutsiko duen bideo grabazioa antolatuko dute. Norberaren aurkezpena eta 1. eta 2. unitateetako ekoizpenak berreskuratu eta 60 segundoko grabazioa egingo dute.	Grabagailua (eskuko telefonoa; Google driveko grabagailua)		

Grabatzen!

BALIABIDE OSAGARRIAK

Aisa hiztegia

- http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/xede-berezietarakoak-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_5VcS&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=149297
- http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1986703/mod_resource/content/11/AISA_HIZTEGIA.pdf

Hiztegiak irudi eta musikarekin (1) P)hoto peach/en logoan klik egin eta flash player aktibatu behar da.:

- [Zelan dago?](#)
- [Ekintzak](#)
- [Gorputz atalak](#)
- [Hiria](#)
- [Garraiobideak](#)
- [Geografia](#)
- [Itsasoan](#)